

B5

Sentidu бага castacen da...

Poema hau beti orriaren ifrentzuan eta testu nagusiaren eskuineko alboan idatzita dago. Hala letra-moldeagatik nola zenbaketagatik, gaiagatik eta ahapaldi-motagatik, ez dago zalantzarik poema beraren zatiak direla 1159v-ko eskuineko albokoa eta 1164v-ko eskuineko albokoa. Nabari denez, testu nagusia idatzi da lehenengo, hala aurkian nola ifrentzuan; gero, orrien aurkietan ziren eskuineko alboetako hutsuneak bete dira, sinadura, zirriborro eta oharrekin; eta, azkenik, hirugarren urratsean, orri horien ifrentzuan idatzi da poema hau (*Sentidu бага castacen da...* hasten dena).

Orrialde-zenbaketak adierazten duenez, lau orri galdu dira aurretik (1155, 1156, 1157, 1158) eta beste lau tartean (1160, 1161, 1162 eta 1163); baina tarteko horietako biren orri-muturrak geratzen dira (koadernoaren joskuratik hurbileneko orri-muturrak), eta horietan ere poema honetako bertso-lerroen hondarrak geratu dira.

Bertso-lerroak idatzi zirenean, ez zen ahapaldi-banaketarik egin, eta gero erantsiak dira 1159v-ko 37-45 zenbakiak eta 1164v-ko 64-72 zenbakiak, bertso-lerroak launakako ahapaldietan biltzen dituztenak. Ez dirudi banaketa hori egokia denik; izan ere, eskuizkribuan ez dira gutxi distiko-segidak, hots, bertso-lerro bikoitietan errima bakarra (-rik, -tu/du, -ea errima errazak) ezarriaz osaturiko poemak (eta horietako beste batzuetan ere gauza bera gertatu da; ikusi, adibidez, A16, B11 eta B12 poemak). Gainera, ahapaldien banaketa horrek arazoak sortzen ditu esaldien banaketari begira; ikusi, adibidez, 40-41 jautzia B5: 16-17 bertso-lerroetan, 41-42 jautzia B5: 20-21 bertso-lerroetan, eta 42-43 jautzia B5: 24-25 bertso-lerroetan. Azkenik, beste norbait ere ohartu da arazoaz, eta ezabatu egin ditu zenbaki guztiak. Gure edizioan, oharretan eman dugu ahapaldi-zenbakien berri.

Dena den, zenbaki horiek oso lagungarri dira poemaren idazkuntza-prozesua ulertzeko eta galdu dena zenbatekoa den jakiteko. Batetik, 1159v-ko testua 37 ahapaldi-zenbakiarekin hasten denez, badakigu 144 bertso-lerro galdu direla aurretik ($36 \times 4 = 144$); orrialde bakoitzean 36-40 bertso-lerro inguru (9-10 ahapaldi) sartzen direnez, badakigu galduriko 1155v, 1156v, 1157v, 1158v orrialdeetan idatzi eta galdu bide zirela poemaren lehenengo bertso-lerroak. Bestetik, 1159v-ko testua 45 ahapaldi-zenbakiarekin amaitzen denez eta 1164v-ko testua 64 ahapaldi-zenbakiarekin hasten, pentsatu behar dugu 70 bertso-lerro galdu direla tartean ($18 \times 4 = 72$; baina 1159v orrialdean badira 46. ahapaldiko bi bertso-lerro). 70 bertso-lerro bi orrialdetan sartzen direnez, pentsatu behar da 1160v eta 1161v orrialdeetan idatzi zirela (horietan baititugu orri-muturrak, ahapaldi egitura berekoak), eta ez 1162v eta 1163v orrialdeetan. Horren bi azalpen izan ditzake: edo horiek galdu ondoren idatzi zen B5 poema, edo B5 poema idatzi zenean ez zegoen zuriunerik orri horien ifrentzuaren eskuineko alboan.

Hortaz, laburtzeko: B5 poemak 288 bertso-lerro zituen jatorriz; 1155-1161 eta 1164 orrialdeen ifrentzuan idatzi zen, baina 214 bertso-lerro galdu dira, osorik edo ia osorik, horietako 144 poemaren hasierakoak (1155-1158 orrialdeetan) eta 70 poemaren barrukoak (1160-1161 orrialdeetan).

Poemaren amaieran, Joan Perez Lazarragakoaren errubrika dago *Fin* epigrafearen ondo-ondoan; errubrika hori ezagun dugu beste dokumentu batzuetatik (*Relación histórica* eta Valladolideko protokoloen artxiboko dokumentuetako sinadurak) eta poema Joan Perez Lazarragak berak idatzi duelako hipotesia indartzen du.

Poemaren ahapaldi-egitura ez da bakana eskuizkribuan: errima lerro bikoitietan duten distikoen segida (kasu honetan 9/10 -, 8 a, beste poema batzuetan bakoitiak gehienbat 10 silabakoak diren arren).

Gaiari dagokionez, neska maitalea beragandik urrundu nahi duen mutilak hari idazten dion azken agurreko gutuna da. Gogoan izan behar da gutunaren hasierako 144 bertso-lerro galdu direla, baina guri iritsi zaizkigun hasieran (B5: 1-22) neskaren jokabide gaiztoaren ondorio kaltegarriak zerrendatzen dira. B5: 23-30 bertso-lerroetan dauzkagu jokabide gaiztoa zein zen aditzera ematen duten aztarnak. Dirudenez, jokabide lizunegia izan du neskak: *martingalaco primeaen barri ... itaunquetea* (B5: 23-24), eta *erro bacoeh bat jaiztea* (B5: 30). Gero, mutilak eskatzen dio jokabidea aldatzeko (B5: 31-70, baina gogoratu tartean 70 bertso-lerro galdu direla) eta beragandik urruntzeko (B5: 79-86). Azkenik, gutunaren amaiera dator (B5: 87-106), azken agurrarekin batean diru apur bat eskainiz neskari.

Gaiaren gordintasuna ikusita, agian pentsatu beharko genuke 1155-1158 eta 1160-1163 orriak ez direla galdu kasualitatez.

<1159v> [...]

Sentidu baga castacen da

andiro aziendea;¹

galçaiten² dogu creditoa,

joya inestimablea.

Eguiten dogu delito bat

5

gutziz intolerablea,

andiro ofendietan dogu

¹ *aziendea*: ‘ondasunak’; eskuizkribuan beti du adiera hau, eta ez ‘ganadua’; ikusi, honez gain, A24: 52, A28: 101 eta A28: 154.

² *galçaiten*: ‘galtzen’.

guztioen Criadorea.	
Onegaz enojaetan dogu	
guc Aren Magestadea,	10
alborotadu daroagu ³	
virtuosooen ⁴ baquea;	
alteraduric jasarten ⁵ da	
pueblo popularea.	
Guc, barriz, irabazten dogu	15
infamearen nonbrea,	
ceyna dan guiçon gaztearençat	
asa ⁶ dacarren sardea. ⁷	
Çuc eta çure lacooc, ⁸ barriz,	
finic eztaben penea, ⁹	20
sobrenombre bat generala:	
libidinosen ¹⁰ limea. ¹¹	
Martingalaco ¹² primeaen ¹³ barri	

³ *alborotadu daroagu*: ‘aztoratu, asaldatu ohi dugu’; “partizipioa + *joan / eroan*” perifrasiarekin testu zaharretan usu agertzen zaigu ohitura adierazteko. Lazarragak ere behin baino gehiagotan erabiltzen du; cf., besteak beste, *Ene capaac egon doaz / ayn ondo toleztaduric* (A23: 53-54) eta *ascotan sarri nic neroean / requeridu ta seguidu* (B12: 7-8).

⁴ *virtuosooen*: Sintagma honetako *-oen* erakusle ala artikulatu den zaila da erabakitzen: artikulutzat hartu dugu, eta hartara izenari lotuta eman, ez baitirudi erakusleen ezaugarri nagusi den indar deiktikoaren zantzurik topa daitekeenik sintagma honetan. Antzeko arazoa dakarren adibide batentzat, ikusi *lecuorretan* (A23: 82).

⁵ *jasarten*: ‘jartzen’; *jasarri* aditzaren esanahiari dagokionez, badirudi hala ‘eseri’ (A17: 99, A26: 149, B12: 49) nola ‘jarri’ (A10: 7, B5: 13, B15: 63) esan nahi duela eskuizkribuan, testuinguruaren arabera.

⁶ *asa*: ‘hatsa, kiratsa’.

⁷ *sardea*: Sardea edo hiru-hortzekoa, zure-kiratsarekin batera, deabruaren ezaugarria da.

⁸ *çure lacooc*: Lazarragak absolutiboarekin erabiltzen du gehienetan *laco* konparatzailea, pertsona-izenordainaren ondotik (*çu laco, ni laco...*); baina, agerraldi honetatik kanpo, bada beste bat ere bikoiztasun horren lekuko: A16: 37 lerroan, *çure laco* > *çu laco* zuzenketa egin du.

⁹ *finic eztaben penea*: Inferuari buruzko antzeko esapidea agertzen da eskuizkribuko beste toki batean: *Eongo dira / onela condenaduac / secularecoz / finic ez daben lecuan* (A26: 139-142).

¹⁰ *libidinosen*: Adjektiboak genero femeninoaren marka hartu du, eta hau horren genitiboko forma da: *libidinosa* absolutiboa, *libidinosen* genitibo plurala. *-a* amaiera duten hitzen artean ez dugu beste adibiderik aurkitu *-ae-* > *-e-* monoptongazio kasurik erakusten duenik: *bervaen* (AL: 1142v), *andraen* (A9: 5), *obraen* (A9: 7) eta *coitaen* (B15: 36). Hau da, dirudienez, eskuizkribuko bakarra.

¹¹ *limea*: ‘goren gradua’; hots, neska libidinosoen artean libidinosoena. Cf. *DAut*, s.v. *lima*: “Figuradamente, y tomando la causa por el efecto, es el último pulimento, corrección, retoque o enmienda que se da a cualquier obra, y particularmente a las de entendimiento”.

çuc niri itaunquetea ¹⁴	
utra ¹⁵ da nescac ¹⁶ eguiteco	25
pregunta losabaguea.	
Badanic bere, ¹⁷ doçuna leguez ¹⁸	
aragui gaxto gosea, ¹⁹	
estilo onçat ²⁰ artu doçu	
erro ²¹ bacoçh ²² bat jaiztea. ²³	30
Ay, arren, bada, gal daquiçula ²⁴	

¹² *Martingalaco*: ‘armaduraren hankarte inguruko zatiko’, hots ‘hankarteko’; cf. *DAut*, s.v. *martingala*: “Parte del arnés que cubría las entrepiernas”.

¹³ *primeaen*: ‘txori handiaren, txori ederraren’; cf. Covarrubias, s.v. *prima*: “Entre las aves de bolatería, es la hembra; la qual sale con mayor cuerpo que el macho; y a este llaman torçuelo, por aver quedado disminuido y torcido”.

¹⁴ *itaunquetea*: ‘galdetzea’; hemen, mutila sexurako probokatzea izango litzateke gizonaren organo sexualari buruz galdetzea.

¹⁵ *utra*: ‘oso’; gutxienez Kapanagari eta Oihenarten atsotitzei esker ezagutzen genuen (cf. *OEH*, s.v.).

¹⁶ *nescac*: Formalki ergatibo mugagabea zein ergatibo plurala izan badaiteke ere, gure ustez ergatibo mugagabea da *nescac*; erreferentzia mugaturik gabeko sintagma osatzen da hala, sintagmak adierazten duen izenaren interpretazio orokorra edo generikoa eragiten duena, *ilinti gachec* (B5: 33) adibidean bezala; cf., bestalde, *Herrik bere lege, etxek bere aztura* (Oih. *Prov.* 229). Testu arkaikoetan baditugu halako balioa duten ergatibo mugagabeko adibideak (Leizarragarenean, kasurako), baina Lazarragaren eskuizkribuan bi adibide horiek baizik ez ditugu aurkitu izen arruntekin, alde batera utzita beste balio bat duten erreferentzia bakarrekotzat edo izen berezi gisa interpreta daitezkeen *ugaçabac* (AL: 1142r, 1145r), *setienbrec* (A14: 8) eta *aytac* (A19: 9). Formaz berdina den ergatibo pluralaren adibidearentzako, ikus *doncellac* (AL: 1154v).

¹⁷ *Badanic bere*: ‘hala ere’; *badanic bere OEHn* ez dago jasota, baina cf. *badarik* ‘hala ere’: funtsean Iparraldean lekukotzen bada ere, badago GN-zko adibiderik (1609ko poesietako batean, zehazki), eta Otxoa Arinek ere erabiltzen du. Lazarragaren eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu dugu: A6: 43, A10: 61, A24: 51, A26: 13, A27a: 7, B5: 27 eta B12: 51.

¹⁸ *doçuna leguez*: ‘duzun legez, duzunez, duzunez gero’; behin baino gehiagotan dago eskuizkribuan “aditza + *-na leguez*” (AL: 1142r, 1151v, A17: 109, B5: 27); baina badago “aditza + *-n leguez*” ere (B4: 1, B16: 74).

¹⁹ *aragui gaxto gosea*: ‘haragi gaiztoaren gosea’.

²⁰ *estilo onçat*: Gaztelaniaz, XVI. mendean, hamabi aldiz aurkitu dugu “por buen estilo” esamoldea *CORDEn*.

²¹ *erro*: ‘errapeko erro’.

²² *bacoçh*: ‘bakar’.

²³ *jaiztea*: Hemen, mutilaren kanpaia jotzea litzateke mutilaren *erro* bakarra jeiztea.

²⁴ *gal daquiçula*: Nahiz eta *daqui-* ez den ongi ikusten, ez dugu dudarik **edin* laguntzailearen nor-nori adizkia irakurri behar dela, Lazarragak *galdu* aditza iragangaitzean jokatu ohi baitu: *Esperancea galdu jaquinic / bici çan, aseguin bague* (AL: 1145v), *Tortolachoa ebiltan da / bacoçhic maiaz ilean, / bere laguna galdu jaquin da / tristeric soledadean* (A16: 73-76), *libertadea gal equidan, / aren ordeco baeguidan / prendatan echi içoça* (B16: 103-105). *Egin* baztertu (*daquiçula*) eta **edin*-en alde egitearen

	ortu artaco frutea,	
	ilinti ²⁵ gachec ²⁶ poda deçala	
	an jaiaiten ²⁷ dan borrea. ²⁸	
	Astean beyn baleçarçue ²⁹	35
	aus oça ta brasea, ³⁰	
	agaz osatu lequidiçu ³¹	
	mataduraco ³² frezea. ³³	
<1160v>	[...]	
]o	
]a	40
]dala	
	[...]	
]uez	

bigarren arrazoa da perifrasi aditz nagusiak aditzoinaren forma duela eta ez partizipioarena, *egin* laguntzailearekin ez bezala.

²⁵ *ilinti*: Fruitu-arbolen hostoak edo zurtoina (landare motaren arabera) kaltetzen dituen *phomopsis* onddoa da ilintia (ezagunena gariarena den arren). Mahatsaren kasuan, adibidez, *phomopsis viticola* deritzanak begi edo kimu berriak kaltetzen ditu.

²⁶ *gachec*: ‘txarrek’, ergatibo mugagabea, erreferentzia generiko edo orokorra egiteko. Halako mugagabeez ikusi B5: 25 bertso-lerroko oharra (s.v. *nescac*).

²⁷ *jaiaiten*: ‘jaiotzen’.

²⁸ *borrea*: ‘begia, pinporta, kimua’; oraindik erabiltzen da gaztelaniaz, batez ere mahastizaintzako hiztegian, eta *desborre* terminoarekin lotuta.

²⁹ *baleçarçue*: ‘ezarriko balizute’; *ezarri* aditzaren forma trinkoa da. Aditz horren jokabide sintetikoaren lehen lekukotasuna da eta, dakigunez, bakarra.

³⁰ *aus oça ta brasea*: Errautsa erabiltzen zen zaldien zauriak sendatzeko (cf. *DAut*, s.v. *cernada*: “Emplasto de ceniza y otros ingredientes, que hacen los albéitares para cargar, comprimir, fortalecer los pechos, caderas y otras partes de las caballerías”).

³¹ *osatu lequidiçu*: ‘Osa lekizuke, osatuko litzaizuke’; testu zaharrenetan, **edin* aditza **kidi* erroak ordezkaturik agertzen zaigu egitura bipertsonaletan. Adizki horren agerraldi gehienak ekialdeko testuetan biltzen dira, eta, Lazarragaren adibide hau aurkitu arte, behin baizik ez zen lekukotzen Hegoaldeko testu batean, *Bertso Bizkaitarretan* hain zuzen: *santua bere eztaquiduzu / orregaz baliadu* (Lakarra 1986: 652). Ohar gaitezen adizki honek, XVI. mendean, ez duela -*ke* atzizkia hartzen ez potentzial, ez geroaldi, ezta hipotetikoan ere: *Emac sorhaioari phorru, esqua daquidic gatz* (Zalg. 79), *ny erhoa çu iaquynxu veha enaquidiçu* (Etxp. XII, 16), *Zeha ezak ona, hoba dakidik; zeha ezak gaxtoa, hont eztakidik* (Oih. Prov. 427). Ondoko mendetik goiti baizik ez da hedatuko atzizki modalaren erabilera adizki honetara (Pouvreau eta Axularren testuek erakusten duten bezala).

³² *mataduraco*: ‘zauriko’; cf. *DAut*, s.v. *matadura*: “La llaga o herida que se hace a la bestia de ludir el aparejo”.

³³ *frezea*: ‘zuloa’; cf. *DAut*, s.v. *freza*: “En la montería significa la señal u hoyo que hace algún animal, escarbando u hozando”.

]n	
]ela	
]an	45
]suen	
]an	
] emaiten doa	
]eusteçula	
]uirean	50
]z diostaçu	
]latea	
] gura doçu	
] luma baguea	
]du cineala	55
]raz berdea	
]cenduque saldu	
]ar sidrea ³⁴	
<1161v>	[...]	
]a	
]ulea	60
]diçu	
]a	
]orda çatez	
]tea	
]ori procura bidi	65
]tea	
] enterraceco	
]epulturea	
]ben acorda çatez	

³⁴ *sidrea*: ‘sagardoa’; ziur aski aurreko hitza *sagar* zen, eta, hortaz, izen osoa *sagar-sidrea* bide zen. *OEHN* XVII. mendeaz geroztik agertzen dira *sagardo* hitzaren lekukotasunak (“*Sagarrak anditu dire / sagardoak egiñen ditugu bereala* (s. XVII). *ConTAV* 5.2.9, 142”), baina ez dugu aurkitu *sidra* edo *sagar-sidra* hitzen lekukotasunik; [Klasikoen Gordailuan](#), Lizarraga Elkanokoarena da *sidra* formaren lehenengo agerraldia.

]cea	70
<1164v>	Arereanic ³⁵ ateraçu il baten calaberea; espilu artan mira çatez, ³⁶ nescame engañadea; agan contenpla badeçaçu ³⁷ gogoaz viocerean, ³⁸ urteten procuraduco doçu çaočen costunbrerean. Nic, barriz, errequetan diçut ³⁹ cunplietan dan ⁴⁰ gaueça: nigana guia ezteçaçula secula ceure barquea; ene plaçaan ⁴¹ ce efinçu ⁴²	75
		80

³⁵ *Arereanic*: ‘handik’, hain zuzen hilobitik (cf. [s]epulturea B5: 67); ablatibo pleonastikoa behin baino gehiagotan agertzen da eskuizkribuan: *lecureanic* (AL: 1145v, B21: 82), *arereanic* (A24: 130, B5: 71), *altureanic* (B21: 80), *O[e]reanic* (B33: 1). Bestalde, *arereanic* formaren ondoan, Lazarragaren eskuizkribuan, *arean* ablatibo zahar simplea (AL: 1143r, A24: 82 eta *areanche* A27: 33) eta *arerean*, hartatik eratorria (B12: 18, B16: 84 eta B16: 138), ere aurkitu ditugu, bai eta *aric* (B33: 26) ere.

³⁶ *mira çatez*: ‘zeure burua begira ezazu’; cf. *OEH*, s.v. *miratu*: “(Aux. intrans.). Mirarse. [...] *Mirail huntan nadin bethi, / mira goiz arratsetan*. Arg *DevB* 157”.

³⁷ *agan contenpla badeçaçu*: ‘hartan begiak jartzen badituzu’.

³⁸ *gogoaz viocerean*: ‘gogotik eta bihotzetik’; “X(ga)z Y” egitura da, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko.

³⁹ *errequetan diçut*: ‘erregutzen dizut’.

⁴⁰ *cunplietan dan*: ‘komeni den’; cf. *DAut*, s.v. *cumplir*: “Vale también lo mismo que convenir, tocar o pertenecer para algún efecto o fin; y en este sentido es verbo impersonal”.

⁴¹ *plaçaan*: Mendebaldeko zenbait testu zaharretan (Kapanagarena eta Frai Bartolomerenak, kasurako) inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko markak (-an eta -ak) izenari erabat asimilatu gabe geratzen dira. Lazarragaren eskuizkribuan ere hala gertatzen da kasu horietan, -a amaieradun hitzetako bokal bikoitzek salatzen dutenez: absolutibo pluralean *bervaac* (AL: 1143r, AL: 1153r), *donzellaac* (AL: 1143v), *erropaac* (AL: 1144v), *capaac* (A23: 53) eta *quexaac* (B20: 12) ditu eskuizkribuak; beste horrenbeste adibide ditu salbuespen direnak, ordea: *armac* (AL: 1153r, B30: 23), *ezpatac* (AL: 1153v), *bervac* (AL: 1154v), *coplac* (A8) eta *labradurac* (B33: 12). Ergatibo pluralean bi adibide konparagarri ditugu, *doncellac* (AL: 1154v) batetik eta *ayta-amaac* (A21: 11) bestetik. *canpaac* (A28: 57) salbuespen den ala ez ezin da ziur baieztatu, ez baitakigu oinarrizko forma *canpa* ala *canpaa* den (Landuccik *campae* dakar: “badajo de campana, *campae mia*”); *nescac* (B5: 25) ergatibo plurala bada, beste adibide monoptongo bat genuke bertan (ikus, hala ere, dagokion oharra). Inesiboari dagokionez, lau aldiz agertzen dira forma erabat asimilatuak: *conquistan* (AL: 1145v), *figuran* (AL: 1146r), *provincian* (AL: 1146v) eta *ausencian* (A27b: 6); asimilatu gabeko bokala duten adibideak, aldiz, hiru dira: *Domecaan* (A7: 107), *arcaan* (A24: 27) eta *plaçaan* (B5: 83).

ceure gorpucez tendea, ⁴³	
cegaiti ez dot nic erosico	85
an jarri didin frutea.	
Concluicen dot oneinbategaz, ⁴⁴	
salba prolixidadea; ⁴⁵	
nic uste baño luce ⁴⁶ ičan da	
cartaco parbolea. ⁴⁷	90
Baquit ⁴⁸ jarrico çareana ⁴⁹	

⁴² *ce efinçu*: ‘ez ezazu ipini’; *ifini* aditzaren agintera trinkoa. Halako hamaika aurkitu ditugu Lazarragaren eskuizkribuan: *efinçu* (A16: 59), *jafindaçu* (A17: 44, B16: 34), *ce nafinçu* (A17: 60), *dafinquet* (A24: 27), *ez difinçuen* (A27: 4), *badafinçu* (A27: 41), *ifinçu* (A28: 172), *dafinela* (A28: 175), *nafinçu* (B3: 70), *nafinela* (B4: 4), *ce efinçu* (B5: 83).

⁴³ *ce efinçu / ceure gorpucez tendea*: ‘ez ezazu ipini zure gorputza erakusgai eta salgai’. Esamolde osoa gaztelaniazko *poner tienda de* esamoldearen kalkoa da, eta horregatik dago *gorpucez* instrumentalean. Gaztelaniazko esamolde horrek ‘zerbait erakusgai jarri’ edo ‘zerbait salgai jarri’ esan nahi du, eta hemen ondo datoz bi adierak elkarren osagarri. Hona hemen gaaztelaniazkoaren adibide argigarri batzuk (*apud CORDE*): “Lo tercero que mucho agrava los pecados en la Magdalena es que eran escandalosos. Hay pecados que, aunque lo son, no escandalizan a nuestros vecinos, como son los que vos solo cometéis y a vuestras solas; mas **poner tienda de mal vivir**, éstos son muy aborrecibles” (Fray Pedro Malón de Chaide, 1588, *La conversión de la Magdalena*); “Decilde á una vieja honrada, con sus tocas reverendas como una mula canóniga, que no **ponga tienda de su hija**; dirá que es mujer y pobre, á quien suele ser ordinario usar esas corredurías; pero que Fulano es hombre, y honrado, y vive de ser padre de su hija, llevando á su casa la mancebía: digo, los mancebos del lugar. El amancebado de veinte años dice que tiene hijos en aquella mujer, y que á ella y á ellos los ha de mantener” (Fray Alonso de Cabrera, c. 1598, *De las consideraciones sobre todos los evangelios de la Cuaresma*); “El concepto que yo he hecho es que son muy honradas, y mucho más las casadas, y aunque se cuezan habas, no es á calderadas, como en otras partes, y apenas se hallará india tagala ni pampangá que **ponga tienda de su persona**, ni sean tan perdidas como vemos en otras partes” (Juan José Delgado, c. 1754, *Historia general sacro-profana, política y natural de las islas del Poniente llamadas Filipinas*).

⁴⁴ *Concluicen dot oneinbategaz*: Esaldi berbera dago B2: 7 bertso-lerroan: *concluicen dot nic oneinbategaz*. Erakuslean oinarrituriko forma hauek hiru graduatan agertzen dira eskuizkribuan, batzuetan monoptongaturik eta beste batzuetan monoptongatu gabe: *oneinbat/oninbat*, *orrinbat*, *aynbat/ainbat*. Cf. *oneinbat* (AL: 1152v, A3: 23, B3: 51), *oneinbategaz* (B2: 7, B5: 87), *oneinbatenaz* (A24: 9), baina *oninbatenaz* (A23: 33 eta 85); *orrinbat* (A26: 70); eta *ainbat/aynbat* (*passim*); monoptongazio horien antzekoa da orobat *cinbat* (A26: 79).

⁴⁵ *salba prolixidadea*: ‘saihesturik (bukaera honetan) luzeegi izatea’; *salba* hori gaztelaniazko *salva*-tik hartua da, eta gogoratu behar da jatorriz, gaztelaniaz, *salvar* aditzaren partizipioetako bat dela (*salvo* bezala) eta partizipio absolutuko egituretan erabili ohi dela. Lazarragaren egitura hau gaztelaniazko partizipio absolutuko egitura horien kalkoa da.

⁴⁶ *luce*: ‘luzeago’; eskuizkribuan lau lekutan aurkitu dugu “*baño* + adjektiboa gradu positiboan” egitura: *au baño guiçon firmeric* (A11: 12), *Mundu guztian ni baño ezta / oy amoradu firmeric* (A14: 111-112), *nic uste baño luce ičan da* (B5: 89) eta *mendi-aran[a]c gustiac baino / ene coytaoc naguci* (B31: 3-4).

⁴⁷ *cartaco parbolea*: ‘gutuneko kontakizuna’; bertso-lerro honengatik dakigu gutun gisa idatzia dela poema osoa. Ez dakigu zehazki parabola bat ote zegoen galdu den zatian, ala besterik gabe kontakizun generikoa aipatzeko darabilen *parbolea* hitza.

nigana enojadea;	
nic aregaiti ⁵⁰ ez nei emun ⁵¹	
choricho baten lumea.	
Ceurorrec emun doçun guero ⁵²	95
causa originalea, ⁵³	
remedioçat ar eçaçu	
ceurorrec sufrietea.	
Aserraturic egon arren,	
ez dot isico polsea;	100
lau ducat ⁵⁴ bidalquetan diçut,	
moneda aleguerea;	
estal eçaçu oriegaz ⁵⁵	

⁴⁸ *Baquit*: ‘badakit’; eskuizkribuan ez dago behin ere *badaquit* forma osoa, horren kontrakzioz sorturiko *baquit* baino, lau aldiz (A12: 15, A17: 32, B5: 91, A29: 57).

⁴⁹ *çareana*: -na konpletiboa da.

⁵⁰ *aregaiti*: ‘harengatik’; hitz hau testuan hiru lekutan agertzen da: *aregayti* (A14: 29) eta *aregaiti* (A23: 28 eta B5: 93). Ez dugu Lazarragarenez beste adibiderik aurkitu, ez *OEHn*, ez *OEHren* corpusean, ezta *Klasikoen Gordailuan* ere; badira *aregaitik* batzuk, baina denak XIX-XX.ekoak. Esanahiari dagokionez, kausalaren (‘haserretzearren’) eta kontzesiboaren (‘haserretu arren’) arteko muga ez da argia.

⁵¹ *ez nei emun*: ‘ez nezake eman’.

⁵² *emun doçun guero*: ‘eman baituzu, eman duzunez’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako -n *guero* eta -n *azquero* egiturak erabiltzen ditu; -n *guero* horietako bat da hau.

⁵³ *originalea*: Hitz-bukaeran -e paragogikoa duen -le bukaerarekin, gutxienez lau hitz aurkitu ditugu eskuizkribuan: *naturale* (AL: 1147v), *arbole* (AL: 1153r), *originalea* (B5: 96) eta *rosale* (B16: 87), baina bada *naturala* (B16: 78) ere. Cf. baita Lcc “naturalmente, *naturalea leguez*”, “animal, *animalea*”, “árbol, *arbolea*”, “brotar los árboles, *arboreac brotadu*”, “canal de tejado, *telladuco canalea*”...

⁵⁴ *lau ducat*: Lau dukat ez zen diru asko XVI. mendearen amaieran, baina bazen zerbait. Konparazio baterako, Filipe II.aren ondasunen inbentarioan, txilin-iratzargailu arrunt batek edo letoizko kriseilu batek balio dute lau dukat (*apud CORDE*): “4.748. Un despertador de latón, toscó, con su campanilla sin pesa. Tasado en cuatro ducados. 4.749. Un candilaton con pie y un cañón y mechero y encima una rosca, que sirve para el aceite. Tasado en cuatro ducados” (Izengabea, c. 1600, *Inventarios Reales. Bienes muebles que pertenecieron a Felipe II*). Esteban Garibairen oroitzapenen liburuan, larruz landuriko kutxatxo batek bi dukat balio ditu (*apud CORDE*): “Mandé tambien que se le hiziese una caxa guarnecida de cuero á su medida. Tráxola con la cruz en ella muy lindamente labrada, con ocho aldabillas bien curiosas, y costó dos ducados” (Esteban Garibai, c. 1594, *Memorias de Garibay*).

⁵⁵ *oriegaz*: ‘horiekaz, horiekin’; eskuizkribuan hiru aldiz aurkitu dugu -egaz sozietibo plurala: *çuegaz* (A10: 27), *oegaz* (A26: 87), *oriegaz* (B5: 103); eta bitan -ogaz sozietibo plurala: *escuogaz* (A17: 64) eta *damaogaz* (B2: 10). Plurala da orobat *baçugaz*: *urregorriczo letra baçugaz* / egoan *escreviduric* (A1: 11-12), *Egun batean leucala / beste baçugaz cabildu*, / aen *artera içan ninçan* / *exil-exilic coladu* (B12:

ceure necesidadea.

On çara,⁵⁶ ece ezta faltaco

105

ceruco ruciadea.⁵⁷

Fin

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

1159v Bertso-lerro hauek testu nagusiaren eskuineko alboan idatzita daude. Norbaitek launaka zenbatu ditu, launa bertso-lerroko 9 ahapaldi balira bezala, 37-45 zenbakiekin. B5: 37-38 bertso-lerroak ahapaldi-zenbaki gabe gelditu dira. **12** baquea] *ja baquea* dakar eskuizkribuan, lehenengo bi letrak ezabatuta. **15** barriz] esk. *bariz*. **18** sardea] *-d-* mantxa batez estalirik. **19** çure] *-e* zerbaiten gainean idatzita dago (agian beste *-e* txikiago bat). || lacooc] *-c* mantxa batez estalirik. **22** libinidosen limea] horrela idatzi du lehenengo, eta hori tatxatu ondoren idatzi du azpian, lerroartean, *pue[.]e[.]az etea*. Eskuizkribuan zehar, gure testurako idatzialdien arteko azken bertsioa bildu ohi dugun arren, kasu honetan desberdin jokatu dugu, bertsio zaharrena ondo irakurtzen eta ulertzen baita, eta bertsio zuzenduarekin, berriz, hankamotz eta ulergaitz geratuko bailitzateke ahapaldia. **31** daquiçula] beste zerbait ezabatu ondoren haren gainean idatzita dago, eta *daqui-* ez da ondo ikusten. **1160v** 1160, 1161, 1162 eta 1163 orrialdeak apurtu dira, eta horietako bi erabat galdu zaizkigu, baina beste biren orri-muturrak geratu dira, hain zuzen koadernoaren erditik behera joskuratik hurbilen diren orri-muturrak. Ezin da jakin zein diren galdu direnak eta zein partzialki kontserbatu direnak, eta arbitrarioki erabaki dugu 1160 eta 1161 deitzea partzialki kontserbatu diren orri-muturrei. Orri-mutur horien ifrentzuan B5 poemako bertso-lerro batzuen amaiera baino ez da geratu. **49** eusteçula] *uquean* ezabatu ondoren, horren ordeztan lerroartean idatzita dago. **57** cenduque saldu] *-que orain saldu* dakar lerro gainean, tatxatuta. **69** çatez] esk. *catez*. **1164v** Bertso-lerro hauek testu nagusiaren eskuineko alboan idatzita daude. Norbaitek launaka zenbatu ditu, launa bertso-lerroko 9 ahapaldi balira bezala, 64-72 zenbakiekin.

45-48), *baçugaz consultaduric* (B21: 22). Horien ondoan, bada *-ocaz/-ocaç* ere: *delicaduocaz* (AL: 1138r), *berbaocaç* (AL: 1151v), *beguiocaz* (AL: 1152v), *biciocaz* (AL: 1154v); eta *-equin*: *oequin* (A11: 2), *matalotequin* (B30: 5).

⁵⁶ *On çara*: ‘ondo izan zaitez’; gutunak amaitzeko formula ezaguna da, gaztelaniazko *estad bien* edo *estad bueno*, hain zuzen latinezko *vale* ezagunaren ordaina.

⁵⁷ *ruciadea*: ‘ihintza’; hemen, zerutik behera berez datorrena adierazten du, probidentzia hain zuzen. Cf. *DAut*, s.v. *ruciada*: “lo mismo que rociada, que es como se debe decir”. Eta s.v. *rociada*: “La acción de rociar. Llamen al rocío congelado, que se halla en el campo”. Ihintza probidentziaren irudi gisa erabiltzeaz, ikusi gaztelaniazko adibide hau (*apud CORDE*): “ellos biven del rocío del çielo” (Izengabea, 1420-1520, *Cancionero de Juan Fernández de Íxar*).

107 Joan Perez Lazarragakoaren errubrika dago ondo-ondoan, beste dokumentu batzuetatik ezagun duguna.

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B5 – Sentidu baga castacen da...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago